ERREPORTAJEA BOST ELGOIBARTAR RALLYETA IGOERA TXAPELKETETAN « GEHIGARRIA

KILIBARREN KULTURA ASTELEHENEAN, APIRILAREN 2AN, KORRIKARI ONGIETORRIA MADALAN

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001ko martxoaren 30a/VIII. urtea/357. zkia



## ELGOIBARTARRAK RALLYETAN

# Abiadura zainetan

"AZKARRAGO IBILTZEAGATIK EZ DA LEHENAGO 1RISTEN" (Esaera zaharra)

2001-111-30

NANet3 rele!ono dela

## EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Bada ia urtebete Madalako horma tristeetako batean mural bat egin genuela. Mural hura ez dakigu zein arrazoi medio edo zeinek aginduta, baina astegun batean ezabatu zuen Udalak kontratatutako enpresa pribatu batek.

Orain, ia urtebete pasa denean, berriz animatu gara mural bera egitera: gure ustez gizarte mailan gaiak pisu handia duelako eta herri mailan zereginik badagoelako.

Bestealde, parkeari beste bizitasun bat ematen dio eta guk ez dugu erdi hilik eta triste zegoen pareta zahar bati barruko sentimenduak kanporatzen lagundu baino egin.

Besterik gabe, herriak asko irabazten duelakoan, ez dezatela ezabatu eskatzen dugu (ez presorik den artean behintzat).

S.
N.A.N 15.395.636
Elgoibarku Gazte Asanbladaren izenean

## ELGOIBARKO HERRIARI

Behean sinatzen dugunok apirilak 10erako Ezker Abertzaleak konbokatzen duen greba eta mobilizazioekin bat egiten dugu eta elgoibartar abertzale eta demokratak animatzen ditugu egun hon-etan parte har dezaten konbokatzen diren ekitaldietan:

1. Madriletik datozen eta etorriko diren erasoei erantzun orokor eta globala eman behar zaielakn. Burujabetza eta nazio eraikuntzaren aldeko oro kolpatzeko asmoa azaldu du Espainiar Estatuak (Haika, AEK, Zabaltzen, Historia, Euskara, Zumalabe Fundazioa, Xaki, Egn, HB) eta aurrerantzean ere horretan jarraituko du.

2. Bakea gatazka politikoari Iotuta dago erabat. Euskal Herriari bere eskubideak ukatzen zaizkiolako sortzen da gatazka. Euskaldunak gara inolako eskubiderik ez daukagunak: ez daukagu karnetik, ez legerik, ez epaitegirik, ez konstituziorik. Burujabetza da bakea. Bide batez, apirilaren 4an, arratsaldeko 19:30ean, Kultur Etxean egingo dugun asanbladara deitzen zaituztegu.

Asier Zengotita, Bittori Guenaga, Juan Carlos Marcos, zinegotzlak. Sabino Zenarruzabeitia eta Gaizka Zurio, sindikalistak; Pello Mendizabal, Maider Elustondo eta Iñaki Odriozola, irakasleak; Myriam Onaindia, nekazal teknikari ingeniaria; Higinio Nuñez, iturgina; Hodei Otegi, ikaslea; Koldo Aranburu, Aitziber Arregi, Andoni Viñaras, Zigor Bengoetxea, Oier Txurruka, Sergio Fernandez, Kurutz Kastrillejo, Oscar Garcia eta Ainhoa Urbieta, langileak; Imanol Cerdeira, administratiboa.

# Urruzunoren begi izkutua



Kale eta errepideen zimurdurak estali nahiz, Iifting txikiak egiten dihardute. Zubi bat baino gehiago operazio estetikoa jasaten ari da. Errepide nagusiaren intentsitatea arintzeko, koIesterolaren aurkako pilulen funtzio bera betetzen dute udaltzainek. Eta garbitzaileek egunero dihardute zikinkeriaren liposukzio lanetan, larunbatetako betekaden ostean batez ere.

Ez al duzue sumatu udaberria iritsi dela eta gure herriak ere gorputz liraina erakutsi nahi duela? "Mens sana in corpore sano" beteko balitz sikiera...

lñiga Otaño

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
u 943 74 41 12
Publizitatea:
r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barrenatopagunea..com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ARGRAIIAT7-ULEA
ElgOlbalke Izarra

ELGOIBARKO 12,511RA
I It''krn

LAGUNTZAILEA Elgoibarlo Udaha ZUZENDARIA Eli AiZpLifti KAzETARIAK Iran Agnrealakingl Asier Orbea PuaLinTASEA Andoilz Agirregomezkorla MAKETATZAMEA Bea Ansola ADDinirnADDA Alnala Rodrigez GERENTDA Rala Alvatez, M. Angeles OrtUDSID, KOLARORATZAILEAK ATral Lariz, Unal Argarale, Eguzkiie Aranberri, Lorea Perez de Albeniz,Jokin Marlinez,Aitor Zabaleta, Leire Olga Unzilla, Montse Arregi, Juanito Gorostiza. Iker Maguregi, Jon Gurrubaga, Jon Eugi,AinhoaAndonegt, Kokoe ICE. eta Urruzuno AZALEKO ESALDIA Gotzon Garaleren IiburutiN INPIDIAATEGIA Gertu Koop. E. TinADA 4.000 ale LEGE GanDAILUA SE-1.038/92 ISSN 1139.1855

*Elgaibarka Udalak, Easka Jaartaritzako Kuhura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

ritx k u txa
es.-•

1DANOBAT
1/112,11'14.

GRUPO Pairp

2001-111-30

## tIlDralt

• Herritar batek telebistako antena noiz konpondu behar duten jakin nahi du: "Iazko uztailetik, herriko hainbat etxetan TVE1 katea ez dugu ikusten eta teknikoen iritziz, arazoaren konponbidea mendiko antenaren rebisioa izango litzateke. Eta hau, beraiek diotenez, Udalari dagokio".

Guk Udalera jo dugu, Hirigintza Sailera, eta bertan esan digutenez. udaletxean ez dakite ezer gai honi buruz. "Ez dakigu antenari buruzko ezer. Guk dakigunez, udaletxera ez da horrelako kexarik heldu oraindik", esan digute.

## KEXAK



• Gizonezko batek honako hau esateko deitu digu: "Madalako parkean txori habia zegoen, 6 arrautzekin, eta egunero begiratzen nituen. Pasa den igandean, ordea, habia ikustera joan nintzenean, norbaitek arrautza guztiak lehertu eta ama hil zuela konturatu nintzen. Ezin dut ulertu horrelakoak nolatan egin daitezkeen. Zer pertsona klase datozkigu herrira asteburuetan? Benetan merezi al du herrian horrelakoei sartzen lagatzea?. Galdera hau airean utzi nahi dut. Ez dago eskubiderik".

# alkatea b

## Eigolbarren bada zer hobetua!



Inor kabetu gabe gauza asko aldatuko nitutke herrian. Batez ere Pedro Niuguruta etorbidean. Bertako torrean hiti nait eta larunbat arratsaldetan inguru hura piska hat gehiago ,-,dutteko agindua emango nuke. ltxura nygargarria hartten du gure porml inguruak: nita, kaka. ia etin izaten da hertatik pdsain ere egin. Gainera. bertan e:oten direnei etin taie ezer esan. aurre egingo badigukete. Bijilantria behar l',,-hanetkoa deks iruditzen zaigu. eta ' arritan idatti eskutittak Udalekoei hori eshamt. baina kasurik egiten dutela iktbita. alkate ,artuks1 baninti huri da egingo nukeen lehen gauza.

**DOLORES MOSQUERA**
Etxekoandrea



# LGOIBARTAIRIALLYITA IGOERATIAPELKETETAII

*Pasa den astean jokatu zen Kataluinian Munduko Rally Txapelketako azken proba. Bertan parte hartu zuten Carlos Sainz, Makkinen, edo Auriol moduko pilotu ezagunek, guztiak ere heroiak, hurbildu ziren milaka eta milaka ikusleentzat behintzat. Aste honetako erreportajekoak aurrekoak bezain ezagunak ez izan arren, benetako heroiak iruditu zaizkigu. Rally eta igoeretan parte hartzen duten 5 elgoibartarretaz ari gara: Josemi Gabtlondo, Ion Gonzalez, Jose Francisco Pedros, Arkaitz Saez eta Eneko Ulazia. Gabiriako "rally sprint" probarekin eman zitzaion hasiera denboraldiari martxoaren 4an. Lehen tgoera, berriz, San Cosmekoa (Blzkaia) izan zen, martxoaren 24an. Txapelketa hauetan 5 elgoibartar tartean tzanik, beraiei buruz zerbait gehiago jakin nahi izan dugu.*

Kataluiniako rallyan Sainzek gidatu zuen "Ford Focus Worl Rally Car" delakoak 50 milioi balio ditu; eta halako 12 kotxe inguru erabiliko ditu urtean zeha, atera kontuak. Dena den, babesle erraldoiak eta mekaniko talderik onenak ditu atzetik. Pilotu elgoibartarrek, berriz, milioi bat eta bi milioi bitartean dauden aurrekontuei egin behar diete aurre. Gehienek esfortzu ikaragarria egin behar izan dute dauden tokira ailegatzeko. Orduak eta orduak sartu dituzte kotxeak prestatzen eta baita igoera eta rally txapelketetan parte hartzeko beharrezko dirua batzen ere. Lan hau guztia 2 minutuko iraupena duten 3 saiotan parte hartzeko, igoeren kasuan. Gehienek dituzte babesleak, baina ez dira nahikoa gastu guztiei aurre egiteko: lasterketetara joan-etorriak, egonaldiak, gasolina, gurpilak, inskripzioak (15.000 pta./lasterketako), e.a. Dirutza handia behar da. Gainera, ez dago ia irabazirik, sariak oso txikiak baitira. Gastuak murrizteko ohikoena pilotuak beraien arazo mekanikoez arduratzea izaten da; izan ere, kolpe edo matxura garrantzitsu bat denboraldiari agur esateko aitzakia nahikoa izan daiteke. Dena den, pilotu guztiak bat datoz esfortzu hauek guztiak merezi dutela baieztatzean. Hau bai afizioa!

**Pilotu elgoibartarrek ordu asko sartu dituzte kotxeak prestatzen eta txapelketetan parte hartzeko dirua batzen**



IZENA: **Josemi Gabilondo**
ADINA: **47 urte**
AUTOA: **Renault Alpine**
ZA1.01 POTENTZIA: **150 zaldi**
ZENTIMETRO KUBIKOAK: **1.1300 z.k.**
AUTOAREN PISUA: **700 kg.**
KATEGORIA: **3. Klasea**

**PALMARESA EDO POSTURIK GARRANTZ1TSUENAK:** 1994.urtean Espainiako Mendiko txapeldun izan zen klasikoen mailan. Aragoi, Kantabria, Asturias, Galizia... Espainia guztiko lasterketetan hartu izan du parte. Bere mailan edo klasean hainbat lasterketa irabazi ditu.

## "Euskadiko Mendiko Txapelketako 15 igoerak egin nahi ditut aurten"

Josemi Gabilondo pilotu elgoibartarretatik beteranoena da. Duela 23 urte lehengusu baten bidez iritsi zen Renault Alpine-a bere eskuetara eta oraindik ere kotxe berarekin hartzen du parte igoeretan, nahiz eta urte batzutan "formula" kotxe bat ere izan zuen. Urte batez bakarrik laga zion txapelketetan parte hartzeari. Kanpoko itxuraz aparte, ezer gutxi geratzen da jatorrizkoa Alpinean; motorra, gurpilak... guztia aldatua du. Lanbidez mekanikoa da eta hala izan ez balitz mundu honetan aritzea ia ezinezkoa izango litzaiokeela aitortu digu, diru asko behar baita. Emaitza ezin hobeak eman dizkio Alpineak eta jadanik ez du aldatzeko asmorik. Aurten Euskadiko Mendiko Txapelketak dituen 15 igoeretan parte hartzea da bere asmo nagusia. laz, 10. amaitu zuen sailkapen nagusian eta bigarren bere mailan. Urbasa eta Arrateko igoerak ditu gustuko.





# R tan

11W111011ff 1~ ~1101UMN N ~ ar grozt m m



IZENA: **Ion Gonzalez**
ADINA: **23 urte**
AUTOA: **Renault 5 GT turhe**
ZA11111 POTENTZIA: **180 zaldi**
ZENTIMETRO KUSIKOAK: **1.400 z.k.**
AUTOAREN PISUA: **900 kg.**
KATEGORIA: **4. klasea R multzoa**




**PALMARESA EDO POSTURIK GARRANTZITSUENAK:** 1997. eta 2000. urteetako Euskadiko Mendiko Txapelketak irabazi zituen bere mailan. Reinetako rallyan 3. postuan sailkatu zen sailkapen orokorrean, berea baino askoz kotxe indartsuagoen aurretik.

## "R-5 izan dut beti bidaia lagun, guztira zazpi eduki ditut"

Jon Gonzalez 1997. urtean hasi zen igoeretan, 19 urte besterik ez zituela. Beti izan du bidaia iagun Renault 5 autoa, baina ez beti bera, zazpi R-5 izan baititu. Esan digunez izugarria da zenbat jabe ezberdin izaten dituzten kotxe hauek. Txikitatik izan du autoekiko zaletasuna. Karneta ateratzeko gazteegia zenean auto telegidatuekin aritzen zen. Ondoren, Berrizko lagun bati autoa erosteko aukera sortu zitzaion. Urte baten bakarrik huts egin du aurrekonturik ez zuelako, laz rally eta igoeretako Euskadiko Txapelketak irabazi ostean, aurten rallyetan buru belarri aritzea da Ionen asmoa. Hala ere, igoerarik garrantzitsuenetan irtetzea nahi du. Natarroako rallya eta Jaizkibel dira bere lasterketarik kuttunenak.



1ZENA: **Arkaitz Saez**
ADINA: **23 urte**
AUTOA: **Ford Sierra Croswerth**
ZALUI POTENTZIA: **310 zalth**
ZENTIMETRO KUBIKOAK: **2.000 z.k.**
PISUA: **1.140 kg.**
KATEGORIA: **4. klasea A multzoa**



**ZENBAIT DATU:**

Arkaitz Saezek iaz erosi zuen Ford Sierra autoa, Sorian. Auto handia erosi zuen eta gastuak ere halakoxeak zirela segituan konturatu zen. Tentazioari ezin izan ziola eutsi aitortu digu. "Agian buru gutxikin eta itsu-itsuan jokatu naban, baina hoiako kotxe indartsu bat kontrolatzen ikasiz gero,

## "Ondo gidatzeko sekretua burua hotz mantentzea da"

izugarrizko sentsaziva izan leikela pentsatzen naban". Hala ere, badaki kotxe txikiagoak egokiagoak direla hasteko. Ongi pasatzeko eta errepidea itxita dagoenean bertan ibiltzeak ematen duen segurtasunarengafik hasi zen lasterketetan. Bere asmoa rallyetan parte hartzea da, baina zorteak kale egin dio, laz, Urraki eta Jaizkibelen bakarrik hartu ahal izan zuen parte. Baten kolpe baten erruz ezin izan zuen amaitu; bestean berriz, arazo mekanikoak izan zituen. Arazoak konpontzea ia milioi bat kosta zitzaion. Aurten amorraturik dago lasterketa bat amaitzeko. Maiatzaren 13an, Jaizkibelgo igoerarekin batera, bere urtebetetzea da gainera, eta bertan dena emateko prest dago.



**IZENA:** Eneko Ulazia
**ADINA:** 23 urte
**AUTOA:** AX GTI
**111101 POTENIZIA:** 105 zaldi
**ZENBAT ZENTIMETRO KUBIKOAK:** 1,400 z.k.
**PISUA:** 700 kg.
**KATEGORIA:** 1. klasea

**ZENBAIT DATU:**

Eneko Ulazia iaz hasi zen auto igoeretan. Garikoitz bere anaia hasi zen lehenik eta motor munduak betidanik erakarri izan duenez, berak ere probatzea erabaki zuen.

## "Lehengo urtia auto eta zirkuituak ezagutzeko da"

Aurten rallyetan hastea pentsatu du, nahiz eta orain arte korritu diren bietan ez duen zorterik izan. Gabiriako rally-sprintean oso gustura ari zela aipatu digu, baina ezin izan zuen amaitu azken zatian gasolinaren bonba apurtu zitzaion-eta. Dena den, aurtengoa autoa eta zirkuitoak ezagutzeko urte aproposa dela esan digu, ikasten joateko". Ahal duen igoera eta rally gehienetan parte hartzeko asmoa du. Kirol garestia dela esan digu, baina oso gustukoa duenez ahal duen bitartean autoarri ahalik eta etekin gehien ateratzen jarraituko du.






**IZENA:** Jose Francisco Pedros Alcañiz
**ADINA:** 31 urte
**AUTOA:** Renault 5 GT Turbo
**ZALDI POTENTZIA:** 180 zaldi
**ZENTIMETRO KUBIKOAK:** 1.400 z.k.
**PISUA:** 800 kg.
**KATEGORIA:** 4. klasea B multzoa

**ZENBAIT DATU**

Jose Francisco Pedrosi bere jaioterritik datorkio autoekiko zaletasuna. Alcañiz (Teruel) herrian jaio zen. Urtean behin lasterketa oso ezaguna egiten da herri honetan, "Monaco txikia deitzen diote, kaleak itxi eta herrian zehar zirkuito bat antolatzen dute. Zaletasun handia dago. 12.000 biztanle dira-eta, 15 gidari daude". Jose Francisco duela 9 urte iritsi zen Altzolara eta

## "Nire jaioterrian, Alcañizen dagoen kale zirkuitoan, parte hartze gustatuko litzaidake"

hemen ere autozale asko daudela nabaritu zuen. Iñigo Uriak, duela bi aste Urrakiko rallyan hil zen pilotu eibartar gazteak saldu zion autoa. "1999. urtean auto honekin irabazi nuen nire mailako txapelketa eta asko iagundu zidan Iñigok hastapenetan. Oso ongi portatu zen nirekin". laz 6 igoeratan eta rally batean hartu zuen parte milioi eta erdiko aurrekontua xahutu zuen arte. Jon Gonzalez elgoibartarrak alde handia atera bazion ere, gainontzekoen parean aritu zela esan digu. Aurten diru gutxiago du eta inguruko lasterketak dira bere helburu nagusia.




**2001 eko EGUTEGIA**

100ERAK

24/3 ........................ San Cosme
01/04 ................ )0IN: S. Reineta
08/04 ............................ Igeldo
21104 ......................... Arrato
29/04 ....................... Iturreta
12-13/05 ................... Jailkibel
18/05 ......................... Reineta
20/05 .......................... Orduña
08/06 ............................ Gorla
08/07 ............................ Ildana
25107 ................. Las Muñecas
10/08 .......................... Uraki
29/09 .................. Montecalvo
20/10 ..................... BarrerMa
27/10 ..................... Trabakua
25/11 ........................ Jalzkibel

RALLY SPRINT

04/03 .......................... Dabiria
17/03 .......................... Urraki
06/05 ..................... Markuarto
23/06 ......................... Aramaio
08/09 ............................ M.R.0
10/11 ................ Alto Calvario

RAII.Y-ak

07/04 .......... Motor Club Ermua
26/05 ............................... Irun
17108 .............................. RBK
14107 ............................ Ayala
21-22(07 .................... Azpeitia
06/10 .................. Autonervion
12-13/10 T Gernika
03/11 .............. Ilasco Navarro

Al2epritarren legeari erreliurtsorlk ez aurkezlea erabald du Espainiako lierri Defendalzaileak

# ATZERRITARREK BERTAKOON ESKUB1DE BERDINAK IZAN BEHAR AL D1TUZTE?



## ELENA ESCUDERO

38 urte, administraria

Nik baietz uste dut, eskubide berdinak izan behar dituztela. Ez dakit legea nola dagoen, baina ez dut uste herri defendatzaileak ongi jokatu duenik.



## BENITO BLANCO

44 urte, pintorea

Bai, dudarik gabe. Legeei eta politikari buruz ez dut asko ulertzen, baina hiritarra naizen aldetik eskubide berdinak izan behar dituztela uste dut.



## ENCARNI CASTAÑO

33 urte, etxekoandrea

Bai, beti ere papelekin baldin badatoz. Bestela, beraien lana gutxiago ordaintzen da eta guri lanpostuak kentzeko arriskua dago.



## PETRA GILETE

36 urte, etxekoandrea

Pertsona moduan, dudarik gabe, hai. Hemengoak zein kanpokoak izan, guztiok izan behar genituzke eskubide berdinak,



## PERFECTO CID

*54* urte, aurre-jubilatua

Bai, guztiok gara gizakiak eta denok izan behar ditugu eskubideak. Gainera, lehen ere hemendik emigratu izan du jendeak, eta atzerritarrak ongi hartu behar genituzke.



## CARMELO LOIOLA

58 urte, komertziantea

Jaiotzen geranetik danok dauzkagu eskubide batzuk, koloria eta nunguak geran begiratu gabe. Legiak pertsonek eitten dittue eta gaizki eginda egon leikez.

g4g1/4

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantnska 49-1 Tel: 943 74 11 B9

lit

Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ŭ 943 74 12 56 (mobila) 609 53 23 83

# Elgoibarko enpresei lehentasuna eman zaie Albitxurin pabiloiak ipintzeko

## "Elgoibarko Industrialdea" elkarte publikoak egin du lur banaketa




lgoibarko Industrialdea elkartea jadanik hasi da Albitxuriko gune ndustrialeko lurrak banatzen. Enpresei partzelak ematerako orduan Elgoibarkoek lehentasuna izan dute, eta herritik kanpokoen eskariak atzera bota dituzte. Besteak beste, honako enpresa hauek kokatuko dira Albitxurin: DMP-Zehatz, Cometel, Spool System, Egondo, Kalman, Fatronik S.A., Agme, Etxe-Tar eta Teknikalde. Guztira, Albitxuriko 62.000 $m^2$ hartuko dituzte enpresek.

"Elgoibarko Industrialdea" elkarte publikoak lursailak banatzeko orduan enpresen jatorria hartu du kontuan eta erabaki hori egokia iruditu zaio Udalari.

Izan *ere*, Elgoibarko Udalak 47.000 $m^2$ doan eman zituen poligono industrialerako eta, beraien esanetan, lurrak elgoibartarrenak izanik, herriko enpresek erabili behar dituzte.

Udalaren nahia gune industriala ahalik eta gehien zabaltzea bada ere, Albitxuriko orografia kontutan hartuta zati batean baino ezingo da hedatu, eta hori aurreragoko fase batean egingo dute agian.

Goiko irudian Albitxurin kokatuko diren enpresen zerrenda azaltzen dugu. Enpresa bakoitzaren kokapena adierazteko zenbakietaz baliatu gara.. I zenbakiduna hurrengo fase baterako lagatako lur saila da.

*I. Hurrengo,faserako.*
*2. Teknikaltk.*
*3.Agme.*
*4. avetar:*
*5. Spool Sistern.*
*6. Egondo.*
*7. Libre.*
*8. Kalman.*
*9. Pabiloiak.*
*10. Pabiloiak.*
*11. D,VIP Zehatz.*
*12. Libre.*
*13. Cometel*
*14. Fatronik.*


HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
Ts 943 74 30 40 ELGOIBAR

AROR PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
Haur eta helduentzako
Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta
AFAS1AK, DISFONIAK, DISIALIAK. DISLEXIAK, HIZMOTELTASUNA, E.L,A.
Toribio Etxeberria 10, 6 eik. EIBAR Tel. 943 20 27 15

muriumer
iwpri.44orketvior
TIPOGRAFIAN eta OFFSETEAN ERA GUZTIETAKO INPRIMAKIAK
Santa Klara 28, behea • Tel. 943 744 292 • Faxa. 943 744 341



## Bonba abisu faltsua izan zen larunbatean Santa Ana kalean

Joan den larunbat iluntzean Gara egunkarian jasotako telefono dei batek Elgoibarko Santa Ana kalean bonba batek eztanda egingo zuela adierazi zuen. 21:00ak aldean inguruko hainbat etxebizitza eta taberna hustu ostean, ertzainak bila aritu ziren, baina alarma faltsua izan zela konturatu ziren, ez baitzuten bonbarik aurkitu. Gara egunkaritik adierazi digutenez bonba Arnaldo Otegi Eflko bozeramaileari zuzeudutakoa zela esan zuen bertako erredakziora telefonoz deitu zuenak.

## Estatuan inork lortu ez duen saria jaso du Danobat enpresak Estatu Batuetan

Estatu Batuetako "General Electric" enpresak "2000 Supplier Exeellence Award" saria ernan dio Elgoibarko Danobat enpresari, San Diegon (California) egindako hornitzaileen bileran. Estatu espainiarrean orain arte ez du inork sari hau jaso. Ipar Amerikako industria taldearentzat hornitzaile ona izateagatik jaso du sari hau Danobatek. Bezeroen beharrei erantzun egokia ematea, kalitatea eta makinetako langileen heziketa zuzena azpimarratu dituzte saria emateko orduan. "General Electric"-ek iaz kontratatu zituen Danobaten zerbitzuekin eta emaitzekin oso gustura geratu zenez, Elgoibarko enpresaren lana saritzea erabaki zuen.



## Urruzunora joateko lurrazpike pasabidea inauguratu zuten asteazkenean, hilaren 28an

Joan den asteazkenean inauguratu zuten Un¯uzuno bailarara joateko trenbide azpian egin duten paso berria. Auzo honetara joatea errazteaz gain, Albitxuriko industrialde benira joango diren auto eta kamioientzat ere abantaila izango da. Lurrazpiko pasabidea egiteko ardura Eusko Jaurlaritzak izan du, eta errepide zatiarena, berriz, Udalak. Oraindik Albitxurirako bidea amaitzea falta da, baina hori "Elgoibarko Industrialdea" erakundeari dagokio. Inaugurazio ekitaldian Jose Migel Mujika Eusko Treneko Zuzendari Orokorra, Antonio Aiz Eusko Treneko Presidentea, Alvaro Amman Lan Publiko eta Garraio Kontseilaria, Juan Vicente Erauskin Eusko Jaurlaritzako Azpiegitura eta Garraio Sailburua, Jon Buesa Eusko Jaurlaritzako Ur Zuzendaria eta Gillermo Garate Elgoibarko alkatea izan ziren.




## IMHko diseinuko ikasleak Holandan izan dira proiektu bat egiten

IMHko diseinuko 10 ikasle eta 2 irakasle Emmenen (Holanda) izan dira otsailaren 19tik martxoaren 2ra bitartean. "Socrates-Aceitin Lingua E" programaren barruan proiektu bat egin dute. Besteak beste, prentsa manual bat diseinatu eta web orri bat sortu dituzte. Gainera, bertako lau enpresa hisitatzeko eta asteburuan Amsterdam hiria ezagutzeko parada ere izan zuten.

# ESKOLARTEKO KIROLAK

## EMAITZAK
Martxoak 31, 3. Jardunaldia

**SASKIBALOIA, litastalan**

**Benjaminak** ■
9:30 Ikastola E- Ikastola B
9:00 ikastola D- Herri Eskola A
10:30 Pilar C- Pilar D
11:00 Ikastola C- Herri Eskola B
11:30 Pilar **A-** Pilar **B**
**12:00 Mendaro A- Ikastola A**

**ESKUBALOIA, limsfolan**

**Alebin mutilak** E
9:00 Ikastola B- Herri Eskola B
9:45 Ikastola C- Herri Eskola A
**10:30** Pilar A- Pilar B
**11:45** Mendaro B- Ikastola A
■ **Alebin neskak** n
12:45 Pilar B-Ikastola

**ESKUBALOIA, Kiraltlegian**

E **Alebin neskak** ■
**10:45** Ikastola A-Ikastola B
■ **Infantil mutilak** E (Probintziako fasea)
**11:30** Ikastola C-Kotorrak (Zarautz)
■ **Infantil neskak** ■ (Probinlziako faseal
**12:45** Ikastola C-Zumaia

**FUTBOL 7, Minletan**

10:30 Pilar E- Mutriku B
10:30 Pilar A- Mutriku A
11:45 Ikastola B- **Deba**
**11:45 BHI** A- Ikastola



## 500 kamiseta banatu dizkie Spri-Lur Elkarteak Eskola Hiroleko partaideel

Gune industrialen garapena helburu uen "Spri-Lur" elkarteak, 500 kamiseta banatu ditu Elgoibarko ikastetxeetan, Eskola Kirolean aritzen diren gaztetxoentzat. Antxon Zubiaurre "Spri-Lur"-eko arduradunak banatu zituen kamisetak, eta ikastetxe bakoitzak kolore bateko kamiseta jantziko du hemendik aurrera, Eskola Kiroleko partiduetan errazago bereizteko. Elgoibarko ikasleez gain Mendaro, Mutriku eta Debakoak ere izan ziren kamisetak jasotzen. Hata ere, jantziek ez dute garaipena ematen eta orain kirolean demostratu beharko dute beraien abilezia,






## Pilar ikastetxeko gaztetxoak Frantzlako Pirinioetan izan ziren eskiatzen

Inauterietan elurra egin zuen Elgoibarko mendietan, baina ez itxuraz eskiatzeko beste. Asmo horrekin joan ziren, hain zuzen ere, duela hiru aste Pilar ikastetxekoak Frantziako Cauterets eski estaziora. Pilarreko ikasle gazteek, eguraldia lagun, oso ongi pasa zutela esan digute eta berriz ere itzuliko liratekeela, pozik aainera,

## 058 gaztetxok jokatu dituzte Ikastolako Pilota Eguneko finalaem

**Ikastolak antolatuta laugarren aldiz egin zuten joan den martxoaren 17an Pilota Eguna. Finalak izan ziren jokoan eta guztira 56 neska-mutilek 16 partidu jokatu zituzten. Elgoibarren pilotak etorkizunik baduela erakutsi zuten, 12 tantutara gogoz aritu ziren-eta. Hona hemen finaletako emaitzak:**

### ■ NESKAK ■

**1994an jaioak**
Maria Barrenetxea-Elena Lariz 12
Ainhitze Exeberria-Maialen Solabarrieta 3

**1993an jaioak**
Aintzane Arizmendi-Amaia Astigarraga 12
Amaia Belza-Zuriñe Insausti 1

**1992an jaioak**
**Nagore Alvarez-Nerea Ayesta 12**
Nagore Larrañaga-lanire Rovira 7

1991an jaioak
Miriam Goy-Marina Ortuoste 12
Nahia Abad-Sara Iriondo 11

**1990ean jaioak**
Enara Etcanizlines Gabilondo 12
Maialen Salaberria-Olatz Gil 6

**1989an jaioak**
**Itsaso** Lopez-Olatz Uriguena 12
Mireia Jauregi-Oihana Perez 9

**1988an jaioak**
Lara Urain-Melany Arrizabalaga 12
Itsaso Alguacii-Leire Garate **9**

**1994an jaioak**
Andrea Zubiaurre-Leire Apellaniz 12
Oihane Garate-Ainhoa Usobiaga 7

### ■ MUTILAK ■

**1994an** jaioak
Xabier Larrariaga-Elena Lariz 12
Ainhitze Eleberria-Julen Tabira 7

**1993an jaioak**
Julen Etxeberria-losu Atxa 12
Josu Espilla-Asier Gurrutxaga 9

**1992an jaioak**
lbon Larrea-Beñat Arrizabalaga 12
Asier Izagirre-Joseba Gabilondo 10

**1991an jaioak**
Haritz Arrillaga-Kevin Arrizabalaga 12
Danel Mendibil-Ruben Irigoien 9

**1990ean jaioak**
Mikel Arosa-Palxi Larrea 12
Endika Etxaniz-Asier Lizarralde 6

1989an jaioak
Kepa Arrizabalaga-Andoni Gomez 12
Unai Herrero-lhigo Garay **6**

**1988an jaioak**
lbai Ugalde-Asier Guemez 12
Hasier Larrea-Endika Astigarraga 11

**1994an** jaioak
Antton Alberdi-Unai Ortega 12
lon Garcia-Abad-lker Rodriguez 7

Kili BaRRen

urteo/72. zkia

2001ko morixoaren

# lla 400 ndbolko aurrekontua onartu du Udalak 2001. urterako

## Udaletxe berriaren eraikuntzan 107 milioi gastatuko dira

Otsailaren 27an, Mendaroko Udalean egin zen Udal Batzarraren sesio arruntean, 2001 urterako Udal Aurrekontuak onartu ziren. Guztira 394.187.000 pta.-ko gastua aurreikustert da. Udaletik adierazi digutenez, guzti honi aurre egiteko Udalak 280.928.000 pta.-ko dirusarrerak jasoko ditu eta, aurrekontua orekatzeko I 13.259.000 pta.-ko mailegua eskatuko du. Ondorengo taulan aurrekontuaren laburpena egin dugu.

### AURREIKUSTEN DIREN GASTUAK

| | |
|---|---|
| Langileen soldatak, Gizarte Segurantza, etab. | 55.600.000 pta. |
| Zinegotzi eta talde politikoak | 3.775.000 pta. |
| Udaletxe eta epaitegiaren mantenimendua | 13,996.000 pta. |
| Udaletxe berriaren eraiketa eta ekipamendua | 107.000.000 pta. |
| Gizarte-Ongizatea | 6.400.000 pta. |
| Terrenuen erosketak, proiektu idazketak eta Mendaro Lantzen S.A | 45.200.000 pta. |
| Beste batzuk | 35.601.000 pta. |
| Ur horniketa, zabor bilketa ta hilerria | 28.600.000 pta. |
| Kultura, kirola, euskara, hezkuntza eta jaiak | 73.580.000 pta. |
| Jubilatuen biltokia | 960.000 pta. |
| Baserrien garapena | 10.675.000 pta. |
| Industria garapena | 10.675.000 pta. |
| Zor publikoa | 11.200.000 pta. |
| GUZTIRA ............................ | **394.187.000 pta.** |

# 30 gazte loan ziren bllaren sagardotegbga Gazte Asanbiadak antolatutako irteeran

Martxoaren 17an, larunbatean, Gazte Asanbladak Hernaniko Otsuenea sagardotegira bazkaltzera antolatutako irteeran 30 lagun inguru bildu ziren. Bazkal osteart Hernanin gelditu ziren egun pasa. Ez zuen arrakasta izan martxoaren 24an Gazte Asanbladak eta "In Leike"k antolatu zuten Zuhaitz Egunak. 3 lagun besterik ez ziren agertu-eta.



**Gaztetxearen aldeko jaialdia**
Hila agurtzeko, bihar, martxoak 31, Gaztetxearen aldeko jaia antolatu da Mendaron. Arratsaldeko 18:00etan, frontoitik abiatuta, txarangapoteoa egingo dute eta gero joku desberdinak ere antolatu dira. Ondoren, afari herrikoia izango da bertara hurbildu nahi duen edonorentzat eta amaitzeko, Gelatxo taldeak emanaldia eskainiko du Frontoian.

# 111 Balko'iak eta leihoak lorez apaintzeko dirulaguntzak

Udalak 1.500.000 pta erabiliko ditu udaberri honetan herriko fatxadak lorez apaintzeko. Betiere, balkotak eta leihoak babestuta egon beharko dira. Oinarriak egun batzuk barru argitaratuko dire1a adierazi digute eta hauek betetzea beharrezkoa da dirulaguntzak jaso nahi izanez gero, behintzat. Kanpaina hau ekainaren bukaeran amaituko da.

# Regina Garcia da berriro Jubilatuen Elkarteko lehendakaria

Otsailaren bukaeran, Kultur Etxean, "Lagun Betikoak" jubilatuen elkarteko kideek hatzar berezia egin zuten. Zuzendaritza berria aukeratze--kotan ziren, baina inor aurkeztu ez zenez, martxoaren 12ra atzeratu zuten zuzendaritza berriaren hautaketa. Azkenik, martxoko batzarraren ondoren hautatU zuten zuzendaritza batzordea. Honako hauek osatuko dute: Lehendakaria Regina Garcia, lehendakari ordea Arantxa Arrieta, idazkaria Manuel Loyola, diruzaina Kontxita Azpiazu eta bordekideak, Gregorio Rubio, *Ma* Carmen Jusue, Ma Asun Ulazia, Jaime Quintana eta Presen Ulazia.

KiliBaRRen Kolaboratzaileak: Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezenarro.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# MEIIIIIARO NDU

*Industriaren agerpenak izugarrizko aldaketa ekarri zuen Euskal Herriarentzat XX. mende hasieran. Ordura arte lehen sektorea (nekazaritza, abelizainiza, arraniza...) nagusi izan bazen ere, urte gutxian leku desberdin asko disziplina berrira makurtu ziren. Debarroa aspaldiko urteetan oso paraje industrializatua izan da eta Mendaro ere bai. Badirudi mende berrian sartu garen honetan, gure herria bideratuko duen ardatz nagusia industria izango dela. Adibide gisa hor daukagu Esser Mendaro industrialde berria, gaurko erreportajean obretako arduradunarekin, udaletxekoekin eta inguruko baserritarrekin hitz egin dugu.*

## "Eibar, Elgoibar eta Plazentziako bainbal enpresek Esser-Mendaro industriaidearenganako interesa azaldu dute".

Aldaketa handiak izango ditugu laster Mendaron. Esser-Mendaro industrialdea eraikitzen diharduen Gurbin S.L enpresako arduradunak, Oscar Alberdik esan digunez, "lanak udazken alderako amaituko dituzte". Gaur egun, Bixuete baserrira inguratzen den edonork, duela gutxira arte Madala eta Igartua baserriak zeuden lekuan, izugarrizko aldaketak antzennango ditu. Lur mugimendu handiak izan dira bertan, industrialde berrirako egokitzapen lanak direla-eta.



**OSCAR ALBERDI.**
**aurbin S.1, Esserideadare eglten art den enpresako arduraduna**

Industrialde berriak, Oscarren hitzetan, "gaur egungoa hirukoiztuko du, 32.000 m2 izango ditu, horietatik 11.000 m2 belardiz eta landarez horniturik, konplexu industriala piska bat atseginagoa egin nahian". Lanak aurreratuta daude eta pabiloi industrialon salmenta ere aurrera doa, "hala ere, salmentak lanak amaitzean gauzatuko dira", esan digu arduradunak. Orain artean, Eibar, Plazentzia eta Elgoibarko enpresa desberdinek beren interesa azaldu dutela ere aipatu digu Oscar Alberdik.

## "Industrialdearen 3. fasea di Udalak egindako azterketa

Mendarok dituen industria eta hirigintza arazoak kudeatu eta kontzeko asmotan sortu da Mendaro Lantzen S.A. Bertako lehendakari ordea den Anton Zubiaurrerekin solasean aritu gara Mendaroren etorkizunaren inguruan.

Antonek esan digunez, Mendaro Lantzen S.A. elkarte publikoa da, bere kapitafa moduan, "helburuen artean salmentaetekinik atera gabe etxebizitzen eraikuntzara zuzendutako lurrak erostearena dago alde batetik, eta lur industrialen kudeaketa, bestetik". Lehen puntuari dagokionean, Garagartzako adibidea dakarkigu Antonek gogora: "Garagartza Mendaroko historiaren zati garrantzitsua izanik, berau berpiztea eta jende gaztea bertaratzea garrantzitsutzat jotzen ditugu. Hala ere, kapital pribatuari ez zaio horrelako proiekturik interesatzen, ez delako errentagarria". Era honetako kasuetan du, hain zuzen ere, zeresanik Mendaro Lantzen S.A.-k.

Mendarok industriaren aldeko apustu garbia egin duela aipatu diogunean, honela arrazoitu du Antonek hartutako erabaki horren nondik norakoa: "Mendaro bezalako herri txiki batentzat industria bultzatzea beharrezkoa da, are gehiago kokatzen den lekuaren ezaugarriak ikusita. Azpiegitura bat sortu behar da herrian, hau bi-

STRIALA



rau Izon denop
holne ez do




**mfrom ZUBIAURRE**
**Sodu Derrla den Moodero Lanizan SA-ko lehendaked ordea**

ziarazteko. Popufazioa haztea komeni zaio Mendarori. Horretarako bertakoei eutsi behar zaie eta kanpoko jendea erakarri. Industriak azpiegitura funtzioa beteko du, jendearentzat lanpostuak sortuz eta azken batoan, herriko zerbitzuen hobekuntza bideratuz".

Mendaroko EAJ-k kaleratu zuen txosten baten bitartez, industrialdearen 3. fase baten berri izan genuen. Horren inguruan zer dakien ere galdetu diogu Antoni: " Udalak eginiko azterketa bat baino ez da izan. Etorkizunean lur industrial gehiagoren beharrean izanez gero, esku hutsik egon ez gaitezen", erantzun digu. "Aztertzen ari garen beste lekuetako bat, Analsa kokatzen den ingurua da", jarraitu du.

## "Industria herrixantzat hiharrezkua izan leike baina oso tristia da baserrizakbotatzia".

11111111111E BASE11111110A



Esser-Mendaro eraikitzeko Madala, Igartu-Zar eta igartu-Berri baserriak bota zituzten. Mendaroko EAJk kaleratutako txosten batean, Anton Zubiaurrek "azterketa hutsa" dela esan digun 3. fasean Bixoete, Andikoetxe eta frabane baserriak daude. Bertan bizi diren baserritarrekin hitz egin dugu. Alde batetik, gauzak egiteko modua ez zaiela gustatu esan digute, beraiek txostenean agertzen dena eta egunkarietan irakurritakoa besterik ez dakitelako. Bestalde, " industria herrixantzat biharrezkua izan leike, baina oso tristia da baserrixak botatzia. Etorkizun iluna dauka baserrixak: batetik bota eitten dittuzte, bestetik gazte jendiak baserrixan lanian jarduteko gogo haundirik ez daka", esan digute I rabane baserrikoek.

# Erretratu zaharra



Hilabete honetako erretratu zaharra **Juanita Elorzak** laga digu. Duela 72 urte inguru ateratakoa da, Errementaineko Joakin zena Ameriketan urtebete pasa ostean Mendarora itzuli zenean. Berriro Ameriketara itzuli aurretik bere senide guztiekin bazkaria egin nahi izan zuen eta ondoren, argazkia atera zuten Garagmizako plazan. Hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Goian ezkeiretik eskumara: **Maria Azpiazu, Maria Esnaolaren gizona, Manuel Esnaola (t), Domingo Esnaola (t), Jose Esnaola (t), Jose Mari Elorza** (f), **Juan Jose Elorza (t), Domingo Elorza (t), Andres Elorza (t), Domingo Arakistain (t), Jose Arakistain, Jose Arakistain** haurra, **Manuel Arakistain (t), Domingo (t), Joakin Arakistain** (t), mutikoa **Jose Arakistain** eta **Juana Andonegi.**

Erdian: **Concha Azpiazu (t), Paula Esnaola (t), Batista Esnaola (t), Pepita Juaristi** haurra, **Jose Inazio Juaristi (t), Pedro Garate (t), Haurra Jose Mari, Bixi Garate** (haurra), **Jose Ignazio Elorza(t), Ignazio Elorza (t), Pedro Amenabar (t), Jose Esnaola (t), Jose Arakistain (t), Rafael Arakistain (t), Faustino Arakistain, Jose Domingo Arakistain (t), Josefa Arakistain (t) eta Mikaela San Martin** (t).

